

e-LEGEZKOAK

Interneteko jende
“legalarentzako” gida

Badakizu
nola babesten zai-
tuen Legeak Inter-
neten?

Badakizu
legez kanpoko
ezer egiten
duzun sarean?




Autorea: **Ofelia Tejerina Rodríguez**, Internauten Elkarteko abokatua
Jorge Flores Fernández, PantallasAmigasko zuzendaria
Laguntzailea: Francisco M. García Ingelmo, Adingabeen Sekziora
atxikitako Madrileko Audientzia Probintzialeko fiskala eta
eszedentzian dagoen epailea

Ideia eta argitalpen-zuzendaritza: Jorge Flores Fernández
Diseinu grafikoa: www.estudionuvola.es
Copyright 2009-2017 EDEX Fundazioa. Eskubide guztiak gordeta.
EDEX Fundazioak PantallasAmigas Ekimenarentzat argitaratua:
www.PantallasAmigas.net

Gidari buruzko informazioa: www.e-legales.net

ISBN: 978-84-9726-966-7

LEGE-OHARRA: Autoreek eta argitaratzaileek ez dute inolako erantzukizunik izango argitalpen honetako edukiak txarto erabiltzen badira edo arbitrariotasunez interpretatzen badira. Gida hau orientagarria denez, ez da ez sakona ez zehatza izango, jorratutako gaia zaila delako eta hainbat ñabardura dituelako. Beraz, profesional adituen banan-banako lege-aholkularitza gomendatzen da.



Internet, legedun hiria

Legeak pertsonen eskubideak, zure eskubideak, babesten ditu. Erakundeek Legea betearazten dute, euren betebeharra da-eta. Internet bidez kalte egiten badizute, Legeak defendatu egingo zaitu.

Legeak gainerako pertsonen eskubideak ere babesten ditu. Inoren eskubideak errespetatzen ez badituzu, legez kanpo jokatuko duzu. Legeak zure egintzen ondorioz sortutako erantzukizunen arabera zigorrek ezarriko dizkizu.



HANKA SARTU NAHI EZ BADUZU, ZUHURTZIAZ JOKATU ETA INFORMAZIOA BILATU. ZURE ONERAKO DA, LEGEA BETETZEN EZ DUELA EZ DAKIENA ERE ZIGORTUKO DUELAKO LEGEAK.

aurkibidea

SAREKO LEGEZKO ARAU-HAUSTE ARRUNTAK	2
HAMAR KASU PRAKTIKO AZTERGAI	14
KONTUAN HARTU BEHARREKOA	22
ADINGABEEN EPAITEGIETAN ENTZUTEN DIREN IDEIA FALTSUAK	26
LEGEA EZARRI EGITEN DA BETI... ADINGABEEN ARTEAN ETA INTERNETEN ERE BAI	28
OINARRIZKO ZENBAIT ADIERA	32

SAREKO LEGEZKO ARAU HAUSTE ARRUNTAK

Internet tresna liluragarria da, eta, egunez egun, harrituta uzten gaitu aukera berriak eskaintzean. Nolanahi ere, adi ez bagaude, ahalmen hori guztia gure kalterako izan daiteke. Baliteke norbaitek sarea erabiltzea guri kalte egiteko eta legez kanpoko ekintzak garatzeko. Beste batzuetan, nahita edo nahi gabe, gu geu egon gaitzezke **Legearen beste aldean...** pare bat klik egiteagatik.



A

Pertsonen aurkako legezko arau haustekak

➔ 1. Mehatxuak

Mehatxuetan, beste pertsona bati adierazten diogu berari edo bere inguruko norbaiti kalte edo kalte larria egingo diogula.

 **OINARRIZKO ZIGORRA: HIRU HILABETE ETA URTEBETE ARTEKO KARTZELA-ZIGORRA.**

 **ASTUNGARRIAK:**

- Idatziz, telefonoz edo beste edozein komunikazio-bideren bitartez mehatxatzea; Internet bidez, esaterako.
- Mehatxatzeko orduan, “delitugilearen zigorgabetasuna errazten duen” tresna erabiltzea; Internet, esaterako.
 - Publizitate eta guzti mehatxatzea, hau da, hirugarrenek mehatxuaren berri izan dezaten.
 - Pertsona baten bizitza pribatuko edo harremanetako egitateak agerian jarri edo zabaldu egingo direla mehatxatzea (nahiz eta ospetsua eta ezaguna izan ez), gauzatu gero biktimaren ospe, sinesgarritasun edo interesen kalterako bada. Kartzela-zigorra bi eta lau urte artekoa da.
 - Delitua egingo dela mehatxatzea (sei hilabete eta bi urte arteko kartzela-zigorra), are gehiago, ez gauzatzeko, trukean ezer eskatuz gero eta helburua lortuz gero (urtebete eta bost urte arteko kartzela-zigorra).

KASU PARTIKULARRAK:

- > **Hertsapena** mehatxua da, eta, indarkeriaz, legezko zerbait egitea eragozten zaie pertsoneri edo nahi ez duten zerbait egitera behartzen zaie, legezkoa izan nahiz ez izan.
- > **Xantaia** baldintzapeko mehatxua da, ez betetzeko trukean zerbait eskatzen da-eta.

2. Kalumniak eta irainak

Pertsonen ohorearen aurkako delituak dira, euren estimuan eta gainerakoek gizaratean euren inguruan duten kontzeptuan dutelako eragina.

Kalumnietan, norbaitek legez kanpo jokatu duela ziurtatzen da, inoiz deliturik ez duela jakin arren.

 **OINARRIZKO ZIGORRA: SEI ETA HAMABI HILABETE ARTEKO ISUN EKONOMIKOA ETA KALTE-ORDAINA.**

Ospea edo estimua gutxieteko asmoz, beste pertsona baten duintasuna kalte-tzen duten ekintzak edo adierazpideak dira **irainak** (apalkuntza, hoben, laido... larriak).

 **OINARRIZKO ZIGORRA: HIRU ETA ZAZPI HILABETE ARTEKO ISUN EKONOMIKOA.**

 **ASTUNGARRIAK:**

- Publizitatea, hau da, kalumnia edo iraina jakitera ematera edo beste pertsona batzuei horren berri ematea; esate baterako, Interneten argitaratzea. Zigorra honelaxe gogortzen da:

- > Kalumniengatik: sei hilabete eta bi urte arteko kartzela-zigorra edo 12 eta 24 hilabete arteko isuna.

- > Irainengatik: sei eta hamalau hilabete arteko isun ekonomikoa.

- Prezioaren, sariaren edo aginduaren truke egitea.

- Osotasun moralaren kalte larrirako tratu laidogarria egotea.

3. Intimitatearen aurkako delituak

Intimitatea norberaren esparru pertsonala da, hirugarrenen jakintzatik urrun eduki nahi duena edo pertsona zehatz batzuek bakarrik jakitea nahi duena. Esparru pertsonal hori baimenik gabe inbaditzea **pertsonen oinarrizko eskubidearen lesio larria da**, euren duintasunaren barruan dago-eta.

Logelako webcamean, gure eguneroko blogean, txat edo foroan taldean egiten dugun elkarrizketan..., hirugarrenen aurrean jartzen dugu agerian geure intimitatea. Nolanahi ere, informazioa eskuragarri egon arren, ezin du edonork edonola erabili. Legea oso zorrotza da arlo horretan.

a) Norberaren datuen erabilera

Norberaren datuak (izen-abizenak, NAN, helbidea, telefonoa...) Konstituzioak berak babesten dituenez (18.4. artikulua), ezin dira erabili titularren baimen informatua eduki gabe eta helburuak zehaztu barik. Esate baterako, iragarki-taulan pertsona baten izen-abizenak eta telefonoa haren baimenik gabe argitaratzen baditugu, kalte egingo diogu.



Legeak debekatu egiten du inoren datuak eskuratzea, jabetzea, erabiltzea, aldatzea eta eraldatzea, haren kalterako izanez gero. Urtebete eta lau urte arteko kartzela-zigorra eta hamabi eta hogeita lau hilabete arteko isun ekonomikoa ezarri daitezke. Datu horiek hirugarrenen artean zabaldu, jakitera eman edo lagaz gero (esate baterako, Interneten argitaratuz gero), bi eta bost urte arteko kartzela-zigorra ezarri liteke.



Irudia, norberaren datua

Irudia norberaren datu osoena dela esan daiteke. Bete-betean identifikatzen gaitu gizartearen, eta informazio intimoa utzi dezake agerian; arraza, esaterako. Hori dela-eta, titularren baimena eduki beharko da erabili ahal izateko. Adibidez:

- titullarrak datu hori lortzeko baimena eman beharko du, hau da, zer inguruabarretan atera ahal zaion argazkia adierazi beharko du.
- datu hori (argazkia) web orrian txertatzeko baimena eman beharko du.
- interneten inolako mugarik gabe banatzeko baimena eman beharko du.



Adingabeak eta modu berezian babestutako beste subjektu ezgai batzuk



Adingabeak direnean, Legea are zorrotzagoa da (isun ekonomikoa eta kalte-ordain handiak ezartzen ditu eragindako kalteengatik), eta babes berezia eransten du. Hori dela-eta, debekatu egiten du "informazioa zabaltzea edo komunikazio-bideetan irudiak edo izena erabiltzea", horren ondorioz "norbaiten ohorea, izen ona edo interesak gutxiesten direnean", "nahiz eta adingabea edo haren legezko ordezkariak ados egon". Zentzu horretan, Interneten adingabeen irudiak zabaltzea legezko arau-hauste larria izan daitekeela esan dezakegu.

Adingabeek ez ezik, arlo juridikoan jarduteko ezgai diren beste pertsona batzuek ere badute babes berezirik; esate baterako, adimen-urritasun larriren bat dutenek.

b) Komunikazioen isilekotasuna

Pertsonen oinarrizko eskubidea denez, errespetatzen ez bada, ondorioak larriak izan daitezke. Posta elektronikoa, berehalako mezuak, txat-zerbitzuen bidezko elkarrizketak, SMS mezuak... komunikatzeko moduak dira, eta, pribatutasuneginez gero (ohikoa denez, foro edo sistema irekietan izan ezik), Legearen babespean daude. Bi gai hartu behar dira kontuan:

- komunikazioa pribatua den ala ez, eta, pribatua izanez gero, nola lortu duen edukia solaskidea ez den beste pertsona batek.
- komunikazioko edukiaren erabilera eta ondorioak.



Oro har, Legearen arabera, "inolako baimenik eduki gabe sekretuak agerian jarzeko edo inoren intimitatea kaltetzeko asmoz, inoren paperez, gutunez, posta elektronikoko mezuez edo beste edozein agiri edo efektu pertsonalez jabetuz gero edo haren telekomunikazioak bidean atzemanaz gero edo irudia, soinua edo beste edozein komunikazio-seinale entzuteko, igortzeko, grabatzeko edo berregiteko tresna teknikorik erabiliz gero, urtebete eta lau urte arteko kartzela-zigorra eta hamabi eta hogeita lau hilabete arteko isuna ezarri ahal izango dira".

Hau da, inoren elkarrizketaz jabetuz gero, legezko araua hautsiko da, eta, gainera, kalte-ordaina ere ordaindu beharko da.



Adibidez:

> Txat ireki batean ikusitako elkarrizketa kopiauz gero edo beste txat edo foro batzuetan jakitera emanez gero, kontu handiz ibili beharra dago erasandakoen daturik edo, are txarrago, adingabeen informaziorik ez zabaltzeko.

> Inoren posta elektronikoa helbidez jabetuz gero (esate baterako, edozein erabiltzailearen pasahitza zein den jakinez gero) eta bertako edukia irakurriz gero, legezko araua hautsiko da. Horrez gain, jabearen izenean helbide hori erabiltzen ausartuz gero, hori egitean hirugarrenei sortu ahal zaizkien kalte guztien gaineko erantzukizuna edukiko du (esate baterako, kontuko benetako titularra delakoan aitortzen dizkioten sekretuak jakitean, euren intimitate-eskubidea ere inbaditzen du).



4. Terrorismoaren apologia

Modu eta testuinguru zehatz batean esandakoaren ondorioz, “iritzi-delituak” sortu daitezke.

Terrorismoaren apologia egiten da, nola edo hala talde armatuei edo erakunde edo talde terroristei babes edo elkartasun morala adierazten zaienean eta delitu terroristetako biktimak edo euren senideak laidotzeko, gutxiesteko edo iraintzeko ekintzak egin edo zenbait gauza esaten direnean.

 **OINARRIZKO ZIGORRA: URTEBETE ETA BI URTE ARTEKO KARTZELA-ZIGORRA.**

Arrazakeriari eta **xenofobiari** dagokienez, oso kontuan hartu beharra dago honako arrazoi hauengatik bereizkeria, gorrotoa edo indarkeria sustatzen badira, urtebete eta hiru urte arteko kartzela-zigorra eta sei eta hamabi hilabete arteko isuna ezarri ahal izango direla: “arrazakeria, antisemitismoa, ideologia, erlijioa, sinesmenak, familia-egoera, etnia edo arraza, jatorri nazionala, sexua, orientazio sexuala, gaixotasuna edo elbarritasuna”. Gainera, arrazoi xenofoboak zigorraren astungarriak izango dira edonolako delituetan.



5. Askatasun sexualaren aurkako delituak

Pertsonen askatasun sexualaren aurkako erasoak gogortasun handiz zigortzen dira legeetan. Interneten, esaterako, ohiko delitua “**jazarpena**” da. Hala ere, “**exhibizionismoa eta probokazio sexuala**” ere ematen dira. Interneten, biktimari igorritako hitzen edo irudien bidez egiten dira jokabide horiek.

Jazarpen sexualean, mesede sexualak eskatzen dira, eta, horren ondorioz, oso egoera objektibo larderiatsua, erasokorra edo iraingarria sortzen da biktimen artean.

OINARRIZKO ZIGORRA:

HIRU ETA BOST HILABETE ARTEKO KARTZELA-ZIGORRA EDO SEI ETA HAMAR HILABETE ARTEKO ISUN EKONOMIKOA.

ASTUNGARRIAK:

- Biktimen aurrean, lan, irakaskuntza edo hierarkia arloko nagusikeriaz jokatzea edo eskatutakoa ez egitea euren kalterako izango dela mehatxatzea (bost eta zazpi hilabete arteko kartzela-zigorra edo hamar eta hamalau hilabete arteko isun ekonomikoa).
- Adin, gaixotasun edo egoeragatik oso zaurgarria den biktima jazartzea (bost hilabete eta urtebete arteko kartzela-zigorra).

Exhibizionismoan, egileak jarrera sexuala erakusten du biktimen aurrean edo egileak beste pertsona bat behartzen du hori egitera.

Probokazio sexualean, adingabeak diren hirugarrenen aurrean saldu, zabaldu edo erakusten da material pornografikoa.

OINARRIZKO ZIGORRA:

SEI HILABETE ETA URTEBETE ARTEKO KARTZELA-ZIGORRA EDO HAMABI ETA HOGEITA LAU HILABETE ARTEKO ISUN EKONOMIKOA, EGILEAREN JARRERAGATIK EDO MATERIAL PORNOGRAFIKOA ERAKUSTEAGATIK.

➔ Adingabeak eta material pornografikoa

Adingabeei eta pornografiari dagokienez, honako hauexek hartzen dira delitutzat:

- Adingabe edo ezinduekin material pornografikoa egitea edo ikuskizun exhibizionista edo pornografiko publiko edo pribatuak egitea.
- Umeen pornografia edukitzea, saltzea, banatzea, erakustea edo umeen pornografia egiten, saltzen, banatzen edo erakusten laguntzea.

 **OINARRIZKO ZIGORRA:** URTEBETE ETA LAU URTE ARTEKO KARTZELAZIGORRA.

 **ASTUNGARRIA:**

13 urtetik beherako adingabeak erabiltzea, oso eszena laidogarri edo iraingarriak erakustea, indarkeria fisiko edo sexuala jasaten duten haurrak edo ezinduak irudikatzea (euren ahotsa edo irudia aldatuta edo eraldatuta erabilia ere, delitua izango da) eta adingabea edo ezindua izatez edo zuzenbidez ardurapean duen gurasoa, tutorea, sendagilea, jagolea, irakaslea edo beste edonor izatea (lau eta zortzi urte arteko kartzela-zigorra).



B Ondaeraren aurkako legeko arau hausteak

1. Ebasketa/lapurreta elektronikoa eta iruzur informatikoa

Jabearen baimena eduki gabe inoren ondasuna ostea da **ebasketa**.

Jabearen baimena eduki gabe ostea da **lapurreta**, baina “gauzen gaineko indarra” erabiltzen da, hau da, atea, leihoak eta sarriak manipulatzeko dira, giltza faltsuak erabiltzen dira... Interneten esparruan, “gauzen gaineko indarra” bat dator “giltza faltsuekin”. Esate baterako, lapurreta izango litzateke jabearen baimena eduki gabe kreditu-txartela erabiltzea, produktuak edo zerbitzuak online erosteko orduan.

 **Lapurretarako OINARRIZKO ZIGORRA: URTEBETE ETA HIRU URTE ARTEKO KARTZELA-ZIGORRA.**

Iruzurrean, hirugarrenei kalte ekonomikoa edo ondare-kaltea sorrarazten zaie engainuen bitartez. Adibidez, baimenik gabeko eragiketak egin nahian, engainu edo gezurren bidez norbait konbentzitzea, bankuko kontuaren edo kreditu-txartelaren datuak emateko.


Era berean, hitzez hitz inor engainatu ez arren, Legearen arabera “engainua” eta, horren ondorioz, iruzurra da manipulazio informatikoak erabiltzea, agiriak edo dirua osteko aukera eskaintzen duen informazioa lortu ahal izateko. Alde horretatik, iruzurrak egiteko ordenagailu-programak ekoitzi, kaleratu, eduki edo eskaintzen dituztenei ere ezartzen dizkie zigorrak; esate baterako, “giltza faltsuak” sortzeko edo manipulazio informatikoak egiteko programak.

 **Iruzurrerako OINARRIZKO ZIGORRA: SEI HILABETE ETA HIRU URTE ARTEKO KARTZELA-ZIGORRA.**



2. Kafteak: krakerra

Legeak debekatu egiten du sare, euskarri edo sistema informatikoetan dauden datuak, programak edo agiri elektronikoak suntsitzea, aldatzea, ezdeus bihurtzea edo kaltetzea. Halakoetan, oso kontuan hartu beharra dago kalte informatikoen-gatiko zigorra ez ezik, delitugileak helburua lortzean eragindako kalteengatiko zigorra ere ezarriko dela.

 **OINARRIZKO ZIGORRA:** URTEBETE ETA HIRU URTE ARTEKO KARTZELA-ZIGORRA ETA HAMABI ETA HOGEITA LAU HILABETE ARTEKO ISUN EKONOMIKOA.

Era berean, Legeak zigortu egiten du delituak egiteko eta, batez ere, engainatu nahian agiri ofizialak edo pribatuak faltsifikatzeko “erremintak, materialak, substantziak, makinak, ordenagailu-programak edo tresnak ekoiztea edo edukitzea”.




3. Jabetza intelektualaren aurkako delituak

Lan literario, artistiko edo zientifikoaren **jabetza intelektualak** egileak dituen eskubideekin dauka zerikusia, eta bi eratakoak izan daitezke:

- Eskubide moralak. Egilearekin lotura iraunkorra dutenez, ukaezinak eta preskribaezinak dira.
- Ondare-eskubideak. Eurei esker, lana 70 urteko epera arte ustiatu daiteke esklusibotasunean, azken egilearen heriotzatik hasita. Epe hori igarotakoan, jabari publikokoak izango dira.

Abestiek, iragarkiek, argazkiek, ipuinek... bezala, web orriek ere badute jabetza intelektualerako eskubiderik. Legearen arabera, egileak baino ezin du erabaki nola eta noiz erabili eta erabiltzeko orduan bere borondatea noiz ez den hartu behar kontuan.

Legeak zigortu egiten du irabazi asmo komertzialaz eta hirugarrenen kaltetan "lan literarioa, artistikoa edo zientifikoa oso-osorik edo zati bat berregitea, plagiatzea, banatzea edo jendaurrean jakinaraztea edo edonolako euskarritan finkatutakoa edo edozein sistemaren bidez komunikatutakoa eraldatzea, interpretatzea edo egikaritzea, jabetza intelektualeko eskubideen titularren edo euren lagapen-hartzaileen baimenik eduki gabe". Era berean, Legeak zigortu egiten du ordenagailu-programak edo beste lan, interpretazio edo egikaritzapen batzuk babesteko erabilitako edozein gailu tekniko neutralizatzeko edo baimenik gabe kentzeko edozein sistema "ekoiztea, inportatzea, kaleratzea edo edukitzea".

 **OINARRIZKO ZIGORRA: SEI HILABETE ETA BI URTE ARTEKO KARTZELA-ZIGORRA ETA HAMABI ETA HOGEITA LAU HILABETE ARTEKO ISUN EKONOMIKOA.**

Legeak berariaz debekutzen du egile-eskubideak babestutako lanak titularren baimenik gabe eta Legearen araberako baimenik gabe, irabazi asmo komertzialaz eta hirugarrenen (oro har, egilearen beraren) kaltetan erabiltzea. Inguruabar horiek guztiak ematen direnean, delitua egingo da, babestutako lana erabiltzean merkataritza-jarduera garatzen delako eta mozkinak lortzen direlako. Halakorik ez badago, ez da delitutzat hartuko (dena dela, "legez kanpokotzat" hartu ahal izango da beste termino batzuetan, horren ondorioz penalak ez diren beste arau batzuk hausten badira; esate baterako, Jabetza Intelektualari buruzko Legea).

Era berean, delitua da ordenagailu-programak ez kopiatzeko sistemen neutralizatorako gailua ekoiztea, inportatzea, kaleratzea edo edukitzea.

4. Jabetza industrialaren aurkako delituak

Jabetza industriala eskubide edo berme multzoa da, eta pertsonen zein enpresen jarduera berritzailea babesten dute (produktu, prozedura edo diseinuetan), bai eta merkataritza-jarduera bera ere, identifikazio eskusiboa erabiltzen dutenean (marka, esaterako).


Jabetza industrialeko eskubideak urratzen direnean (markak faltsifikatuta edo faltsifikatutako produktuak salduta, esaterako), bi kaltetu daude:

- iruzurraren biktima den kontsumitzailea.
- markaren jabea den erakundea edo pertsona, bere salmentak murriztu egin daitezkeelako eta merkatuan bere irudiaren kalterako izan daitekeelako.

Zentzu horretan, lehenengo eta behin Legeak zigortu egiten du erregistro ofizialaren babespeko objektuak, hau da, patentea, marka edo erabilgarritasun-eredua helburu industrial edo komertzialetarako eta benetako titularraren baimenik eduki gabe ekoiztea, inportatzea, edukia, erabiltzea, berregitea, imitatzea, aldatzea, eskaintzea edo merkaturatzea edo, azken batean, beste era batera erabiltzea.

Hori dela-eta, delitua da mundu birtualean bertan edo bertatik kanpo erregistratutako marken edo patentatutako produktuen imitazioak merkaturatzea, eta, zilegizko titularrean ez ezik, kontsumitzaileen eta merkatuko gainerako eragileen artean ere izango du eragina (lehia desleialaren faktoreak hartzen dira kontuan).

 **OINARRIZKO ZIGORRA:** SEI HILABETE ETA BI URTE ARTEKO KARTZELA-ZIGORRA ETA HAMABI ETA HOGEITA LAU HILABETE ARTEKO ISUNA.



1. KASUA



ADISKIDEAREN MESSENGER KONTUA ERABILTZEA EMAZTEGAIAREKIN HITZ EGITEKO

MUTIL GAZTEAK ZALANTZAK ZITUEN, EZ ZEKIELAKO EMAZTEGAI A BERE ADISKIDE BATEKIN GUSTATUTA ZEGOEN ALA EZ. BERAZ, HAREN IZENEAN JARRI ZEN HARREMANETAN EMAZTEGAIAREKIN, ZER GERTATZEN ZEN JAKITEKO

LEGEZKO ARAU-HAUSTEA: INTIMITATEAREN AURKAKO DELITUA

- Komunikazio pribatuko edukia atzeman da bidean, eta neskak komunikazioen isilekotasunerako daukan oinarrizko eskubidea urratu da.
- Isileko informazioa jakitean (adiskidea gustuko zuen ala ez), “sekretuak agerian jarri” direla esan daiteke.
- Adiskidearen datuak erabiltzean, zigorra larriagotu egingo da, nor zen agerian ez jartzeko estrategia zen-eta.
- Adiskideak gertatutakoaren berri bazeukan, konplizea dela leporatu ahal zaio. Ezer ez bazekien, “egoera zibila usurpatzeagatik” salatu dezake, bere izenean jokatu duelako beste pertsona batzuen aurrean.
- Horrela lortutako elkarriketak hirugarrenen artean zabaldu, jakitera eman edo lagaz gero, emaztegaiak intimitaterako duen oinarrizko eskubidearen aurkako delitua ere izango da (bi eta bost urte arteko kartzela-zigorra eta kalte-ordaina). Horrez gain, emaztegaiaren ohorerako oinarrizko eskubidea ere urratu dezake (esate baterako, gizartean lotsagarri utzi dezakeen intimitateren bat azalduz gero). Horrez gain, kasuan kasuko kalte-ordaina ere ordaindu beharko die erasandakoei.

2. KASUA



IKASKIDEAREN ARGAZKIA WEB ORRI OSPETSU BATEAN ARGITARATZEA ITSUSIENEN ATALEKO IRABAZLEA IZATEA LORTU ZUEN

LEGEZKO ARAU-HAUSTEA: INTIMITATEAREN AURKAKO DELITUA ETA IRAINAK

- Intimitatearen aurkako delitua da, norbaiten argazkia, datu pertsonala, bere baimenik gabe erabiltzen delako jendaurrean.
- Horrez gain, irainengatiko delitua ere badago, eta publizitatearen astungarria ere hartu behar da kontuan. Horrez gain, iraindua adingabea denez, zigorrak handiagoak dira. Dena dela, ñabartu egiten dira, erruduna ere adingabea denean. Horrez gain, kasuan kasuko kalte-ordaina ere ordaindu beharko dio erasandakoari.

3. KASUA

E-POSTAZ ETA SMS BIDEZ MEHATXUAK JASOTZEA, BANKUKO DATUAK EMATEKO

GURASOEN KONTUEI BURUZKO INFORMAZIORIK EMAN EZEAN, BERE ARGAZKI KONPROMETITUA ARGITARATUKO LUKETE SAREAN

 **LEGEZKO ARAU-HAUSTEA: MEHATXUAK**

Halakoetan, mehatxugileak baldintzapeko mehatxuengatiko delitua egin du (xantxia).

 Zenbait **astungarri** agertzen dira:

- mehatxuan erabilitako gaitza delitua da (sekretuak agerian jartzea).
- telefonoa erabili da (edo testu idatzia), mehatxua egiteko.
- mehatxatuak xantxiari men egin badio, hau da, bankuko datuak eman badiu, mehatxugilearen helburuaren lorpena izango da astungarria.

4. KASUA

BERE BLOGEAN IRAKURLEEN IRITZIETARAKO DUEN EREMUAN BESTE PERTSONA BATEK IDATZITAKOAGATIK SALATU DUTE

IRAKASLE BATEK SALATU EGIN ZUEN, NOR ZEN ESAN EZ ZUEN NORBAITEK LARDERIATU ETA IRAINDU EGIN ZUELAKO

 **LEGEZKO ARAU-HAUSTEA: IRAINAK**

Larderiagilea da erantzule bakarra, berak editatu eta askatasunez argitaratu dituelako. Nahiz eta irainak web pertsonal edo blogger baten eremuan egon, blogerra ez da besteez esandakoaren erantzulea. Nolanahi ere, webaren administraria bada eta agintaritzak judizialak eduki horiek kentzeko eskatzen badio, egin egin beharko du. Ostantzean, egindako arau-haustearen erantzulea izango da, iritzi-emailearekin batera.

Interneten irainengatiko delitua eginez gero, astundutako isun ekonomikoa ordaindu beharko da, delitua publizitatearekin egiten da-eta.

5. KASUA



100 DEI JASOTZEN ZITUEN EGUNEAN, HARREMAN SEXUALETARAKO ORRI BATEAN IRAGARRITA EGON ZENENKO ASTEAN

EZER JAKIN GABE, BERE IZENA ETA TELEFONO-ZENBAKIA AGERTZEN ZIREN NINFOMANOIA ZELA ADIERAZTEN ZUEN IRAGARKIAN

 **LEGEZKO ARAU-HAUSTEA: INTIMITATEAREN AURKAKO DELITUA ETA IRAINAK**

Erasandakoaren informazioa erabili dute, kalte morala egiteko, apaltzeko. Beraz, **irain larritzat** hartu daiteke, gezurra dela jakinda zabaldu delako (egiaren arbuio ausartegia da) eta Interneteko publizitatearen astungarria ematen delako.

Halakoetan, erasandakoaren datuak bere baimenik gabe erabiltzen direnez (are gehiago, argazkia argitaratuz gero), intimitatearen aurkako delitua ere bada, isileko informazioa zabaltzen delako.



6. KASUA

SEGURTASUN-INDARRAK DELITU-ZANTZUEN BILA DABILTZA ETXEBIZITZA BATEAN

SOFTWAREGILE BATEK IDENTIFIKATU ETA SALATU EGIN ZUEN BERE ORDENAGAILU-PROGRAMEN LEGEZ KANPOKO KOPIAK BANATZEN ARI ZIRELA

LEGEZKO ARAU-HAUSTEA: JABETZA INTELEKTUALAREN AURKAKO DELITUA

Ordenagailu-programen legez kanpoko kopiak eginez gero, erantzukizun penalei aurre egin behar zaie, zenbait egintzatan jabetza intelektualaren aurkako delitua egiteagatik:

- lehenengo eta behin, baliteke ordenagailu-programen babeserako edozein gailu tekniko baimenik gabe kentzeko edo neutralizatzeko sistema ekoitzi edo inportatu izana.
- bigarrenez, legez kanpoko kopiak egiten dituzte.
- hirugarrenez, kaleratu eta banatu egiten dituzte.

Gainera, delitu horretarako 18 urtetik beherakoak erabili badira edo mozkin handi handia lortu bada, urtebete eta lau urte arteko kartzela-zigorra eta hamabi eta hogeita lau hilabete arteko isun ekonomikoa ezarri litezke, kasuan kasuko kalte-ordainaz gain.



7. KASUA

GAZTE BAT AUZITEGIRA ERAMAN DUTE, INTERNET BIDEZ ENPRESA FALTSU BATEKO LANGILEEN SOLDATEN ORDAINKETA KUDEATZEAGATIK

LANA ONLINE AURKITU ZUEN, ENPRESA FIDAGARRIA ZELA ZIRUDIEN, CURRICULUMA ESKATU ZIOTEN ETA LAN-KONTRATUA ERE BIDALI ZIOTEN

LEGEZKO ARAU-HAUSTEA: IRUZURRA

Iruzur-delitua gaztea engainatzen zutenek egiten dute. Informazio faltsuaz web orria sortzen dute, enpresa-itxura du eta mozkin handiak agintzen ditu, denborarik eta esperientzia handirik behar ez duen lana egiteko. Gazteari iruzur egiten diote, hirugarrenek "behar besteko engainua" (manipulazio informatikoa) erabiltzen dutelako, errorea sortzeko. Gainera, bere edo inoren kaltetan diru bidezko eragiketak egiteko eskatzen diote.

Horren ondorioz, gazteak legez kanpoko dirua bidaliko die ezagutzen ez dituen pertsoneri. Gainera, pertsona horien arrastoa berehala galduko denez, gaztea egile eta ageriko buru bakarra izango da ikerketa judizialaren aurrean. Iruzurra edo kapital-zuriketa leporatu ahal diote, eta hiru hilabete eta sei urte arteko kartzela-zigorra ezarri ahal diote. Gainera, isun ekonomikoa ere ezarri ahal diote, eta gutxieneko zenbatekoa iruzurtutako diruaren balioa izango da.



8. KASUA

WEB ORRI BATEAN IKASKIDEEN ARGAZKIAK ARGITARATZEAGATIK SALATU DUTE

IKASKIDE BATEN AITAREN ESANETAN, SEMEAREN INTIMITATEA URRATZEN DA ETA ARRISKUPEAN JARTZEN DUTE, IZENA ETA IKASTETXEA ADIERAZTEAN

LEGEZKO ARAU-HAUSTEA: INTIMITATEAREN AURKAKO DELITUA

Halakoetan, arautegia urratzen da, berariaz adierazten duelako debekatuta dagoela adingabeen argazkiak komunikazio-bideetan argitaratzea, tutoreen baimenik eduki ezean. Ekintza horren ondorioz, zilegizkoa ez den intromisioa gertatzen omen da haren intimitate, ohore edo ospean, eta haren interesen aurkakoa da. Gainera, beste arrisku ezezagun batzuen eraginpean jarri daitezke adingabeak.

Adierazpen larrienean, isileko informazioa jakitera emateagatik delitua izan liteke, eta, halakoetan, lau urtera arteko kartzela-zigorra, hamabi eta hogeita lau hilabete arteko isun ekonomikoa eta erasandakoarentzat kalte-ordaina ezarri litezke.

9. KASUA

ADINGABE BAT EPAITU DUTE BEREIZKERIA ETA XENOFOBIA SUSTATZEAGATIK BERE BLOGEAN, IRITZI XENOFOBOAK ETA BELTZEK JASANDAKO ERASOEN ARGAZKIAK ARGITARATU ZITUEN

LEGEZKO ARAU-HAUSTEA: BEREIZKERIAREN SUSTAPENA

Honako arrazoi hauengatik bereizkeria, gorrotoa edo indarkeria sustatzeagatik delitua: arrazakeria, antisemitismoa, ideologia, erlijioa, sinesmenak, etnia edo arraza edo jatorri nazionala.

Gertaera honen inguruabarrak bereziak direnez, ezarri beharreko zigorra larriagotu egiten da erabat, hirugarrenen argazkiak euren baimenik gabe erabiltzen direlako iraintzeko asmoz eta publizitatearen nahiz arrazoi xenofoboaren astungarriak ematen direlako.

10. KASUA



NESKA GAZTE BATEK IRAKASLEAREN WEB ORRIARI EGIN DIO ERASO ETA BADAHITE NOR DEN

IRAKASLEAREN WEB PERTSONALA ALDATUTA AGERTU ZEN, ADIERAZPEN POLITIKO KONPROMETITUAK ETA IRUDI PORNOGRAFIKOAK AZALTZEN ZIREN ETA EGILEA BERA ZELA ADIERAZTEN ZUEN

 **LEGEZKO ARAU-HAUSTEA: KALTEAK ETA IRAINAK**

Kalteengatiko delitua dago, sare, euskarri edo sistema informatikoetan dauden datuak eta agiri elektronikoak suntsitu, aldatu, ezdeus bihurtu eta kaltetu direlako.

Era berean, irainengatiko delitu larria ere badago, informazio pertsonala erabiltzen delako irakaslearen duintasunari kalte egiteko eta egiaren arbuio ausartegiaz eta publizitateaz irakaslearen ospea gutxiesteko. Era berean, eragindako kalteen helburua agintearen erabilera askea eragozteko edo haren erabakiengatik menderatzea izan litekeenez, beste astungarri bat izango litzateke. Era berean, zigorraren inguruabar astungarria izan liteke delitugilearen zigorgabetasuna errazten duen sistema erabili izana.

Hasiera batean, kalte informatikoetan, urtebete eta hiru urte arteko kartzela-zigorra, hamabi eta hogeita lau hilabete arteko isun ekonomikoa eta kasuan kasuko kalte-ordaina ezartzen dira. Azaldutako inguruabar guztiak batera balioesten dira kasuan kasuko zigorra zehazteko orduan.



KONTUAN HARTU BEHARREKOA

• BETI-BETI KONTUAN HARTU:

- > Inoren posta edo mezuak haren baimenik gabe irakurtzen duzun.
- > Kalte egin nahian, beste baten izenean jokatzeko duzun.
- > Jendaurrean kalumniatu, iraindu edo laidotzen duzun.
- > Sarean, inoren argazkiak edo bideoak haren baimenik gabe hartu edo argitaratzen dituzun.
- > Mehatxatu edo larderiatu egiten duzun.
- > Inoren ordenagailu edo sistemetan sartzen zaren.
- ... Azken batean, legez kanpo jokatzeko duzun.



ZU ZEU ZARA ERANTZULEA






LEGEZKOTASUNAREN MUGARI ERRONKA EGINEZ GERO, JAKIN BEHARREKOAK

- **INTERNETEN EZ DAGO ERABATEKO ANONIMATURIK** eta sarean egiten den guztiak segurtasun-indar espezializatuek jarraitzeko moduko arrastoa uzten du. Horrez gain, arrasto hori nahikoa ez bada, ohi bezala ikertu dezakete: zantzuen atzetik joatea, pistak bilatzea eta saretik kanpo galderak egitea.
- **LEGEA EZARRI EGITEN DA BETI**, biktimak babesten ditu eta errudunei erantzukizuna eskatzen die, edozein adin dutela ere, bai **BENETAKO** bizitza fisikoan” bai “**BENETAKO** online bizitzan”.
- Internet beste eremu, beste leku bat da, eta, bertan, haragi-hezurrezko pertsonak gaude. Ezizenaren atzean, izen-abizendun norbait dago... norbait dago beti. Pertsona hori abusupean egon daiteke, baina **LEGEAK BABESTU EGITEN DUENEZ, BADU BERE BURUA DEFENDATZERIK**.
 - Sarean aurkitu ditzakegun pertsona ezezagunak beti ez dira urrunekoak. **EZ BILATU ARAZORIK**. Ez arriskatu. Zorteari ez egin erronka.
 - **INTERNETEK IRISMENAK EGITEN DUGUNAREN ERAGINA BIDERKATZEN DU**. Kalterik eginez gero, larritasunaren araberako zigorra ezarriko da, irudikatutakoa edo nahi izandakoa baino handiagoa izan zitekeela balioetsi gabe.
 - **ZIGOR-ERANTZUKIZUNA EZ EZIK, ZIGOR EKONOMIKOAK ERE EZARTZEN DIRA**, eragindako kalte-galerengatik. Konpentsazio moduan, zuk zeuk eta zure gurasoek edo legezko tutoreek zurekin handi-handia izan daitekeen diru-kopurua ordaindu beharko duzue.
- Batzuetan, **TXANTXAK LARREGIZKOAK IZAN DAITEZKE**. Gainerakoan kalterako txantxak utzi alde batera.
- **EZER EGIN BAINO LEHEN, ZENBAIT ALDIZ PENTSATU**. Sarean, den-dena gertatzen da erregistratuta, eta klik bakar batek biktimari berari besteko kaltea eragin ahal dizu. Egindakoan, ez dago atzerabueltarik.



ARAZORIK NAHI EZ BADUZU, ZEURE BURUA ETA GAINERAKOAK BABESTU


- Une oro, **ERRESPETUZ ETA HEZIBIDEZ** jokatu. Netiketa erabili.
- Sarean, ez egin inoiz **AURREZ AURRE EGINGO EZ ZENUKEENA**.
- Pertsona edo egoera berrien aurrean bazaude, **BOLADA BATEAN XEHETASUNEZ BEHATU, JOKATU BAINO LEHEN**.
- **LEKU ETA PERTSONA GATAZKATSUAK SAIHESTU**. Gatazkak lehenbailehen eten eta inoiz ez erantzun probokazioei.
- **JOKATU BAINO LEHEN, PENTSATU** eta ez erantzun sutan zaudenean.
- Kontuan hartu **INOIZ EZ DUZULA** sarera igotzen duzun **IRUDIAREN** edo bideoaren gainerako **ERABATEKO KONTROLIK IZANGO**. Berehala kopiatu, erabili eta birbanatu daiteke.
- Idatzi edo argitaratzen duzuna **EDONORK IKUSI DEZAKEELA** pentsatu (gurasoak, auzokideak, etsaiak...) eta ez bakarrik zuk dakizunek edo uste duzunek.
- **ZURE ETA ZURE ADISKIDEEN DATUAK GORDE**. Zenbat eta gutxiago jakin gainerakoek, orduan eta seguruago sentituko zara.
- **PASAHITZAK BABESTU**, ez partekatu eta lantzean behin aldatu. Ez dira erraz asmatzeko modukoak izan behar. Pasahitzak lortuz gero, zure informazio pertsonala eskuratu edo zure izenean jardun dezakete.
- **AHALIK ETA GEHIEN MUGATU WEB KAMERAREN ERABILERA**, informazio lar ematen duelako eta ez da beharrezkoa. Horrez gain, bertatik irteten den guztia grabatu dezakete beste aldean.
- Ordenagailuan **EZ EDUKI SOFTWARE KALTEGARRIRIK** (birusak, troiarrak, harrak, spywarea...), zure segurtasuna kolokan jarri dezake-eta.
- **ZURE HARREMANEN SAREA ZAINDU** eta konfiantza nori ematen diozun kontrolatu. Ez dakizu zer irizpide erabiltzen duten zure adiskideek, zirkulu hurbilenean norbaiti sartzen uzteko.
- **ESPIRITU KRITIKOA GARATU**. Ezer ez da egia "Googlen irteteagatik". Solaskideen informazioak eta benetako nortasuna erkatu patxadaz. **Zure esku dago**.



BIDEGABEKERIAK ETA ABUSUAK JASATEN BADITUZU...

- Ahal duzula, **PERTSONA EDO EGOERA GOGAIKARRIAK** saihestu berehala.
- Behin eta berriro gertatzen ez badira, **PROBOKAZIOEI EZ EGIN JARAMONIK**. Hobe ez erantzutea eta pasatzen uztea. Beharrezkoa izanez gero, zenbait egunez deskonektatu.
- Argi eduki **XANTAIARI MEN EGITEA INOIZ EZ DELA EGOKIA**. Beti-beti, egoerak txarrera egiten du.
- **JAZARPENA IRAUNKORRA** denean:
 - > Abusugileari delitua egiten ari dela jakinarazi eta frogak gorde.
 - > Heldu batengana jo, laguntza behar izango duzulako. Zenbat eta lehenago egin, orduan eta hobe, baina, batez ere, mehatxurik badago.
 - > Jazarpena online jokoren baten ingurunean, sare sozial batean edo beste era bateko zerbitzuan gertatzen bada, administrariengana jo eta egoera salatu, oro har baimendutako erabilera-baldintzen aurkakoa delako.
 - > Egoera arriskutsua dela uste baduzu, salatu.

Gaioi buruz ezer gehiago jakin nahi baduzu, www.e-legales.net bisitatu.



Adingabeen Epaitegietan entzuten diren ideia faltsuak



Adingabeen fiskaltzak eta epaitegiak, hau da, euren delituengatik adingabeak inputatu eta epaitzen dituzten lekuak, zigorgabetasuna zutela uste zuten nerabeez beteta daude. Izan ere, euren ekintzen gaineko erantzukizunen ondorioz sortutako legezko zigorrik ezarriko ez zietela uste zuten. Ideia hori, ordea, okerra da erabat, eta honako hiru ideia faltsu hauek batean dago oinarrituta: →



1 *“Interneten ezin naute identifikatu, anonimoa naiz”*

Ez da egia, **ordenagailu guztiek arrasto informatiko** argia bezain eksklusibo eta bereizgarria uzten dutelako Interneten eta estatuko segurtasun indar nahiz taldeek erraz-erraz antzematen dutelako. Polizia nazionalak, guardia zibilak eta polizia autonomikoez oso ondo prestatutako agente adituak dituzte, horrelako delituzko ekintzak aurkitzeko eta jazartzeko. Sakelako telefonoek ere bertatik egindakoaren ageri-ageriko aztarna uzten dute.

2 *“Adingabea naizenez, ezin didate ezer egin”*

Ez da egia, **hamalau eta hamazortzi urte arteko adingabe guztiek** euren delituzko egitatean gaineko **erantzukizuna dutelako**, helduena ez bezalakoa izan arren (adingabeei ez zaie inoiz kartzela-zigorra ezarriko, esate baterako). Dena dela, zigorraren ikuspegitik nahiz ondarearen edo kalte-ordainaren ikuspegitik erantzun beharko du. Legezko arauak Adingabeen Zigor Erantzukizunari buruzko Lege Organikoan azaltzen dira funtsean. Horren arabera, adingabeen fiskalek adingabeek egindako delituak eta hutsegiteak izapidetu eta ikertu behar dituzte, eta adingabeen epai-leek, ordea, legez kanpoko jokabideak auziperatu behar dituzte.

3 *“Ez dut ezer txarrik egin, grabatu eta sarera igo nuen, besterik ez”*

Pertsonen aurkako delitu askoren argazkiak atera edo grabatu egiten dira (lesioak, tratu txarrak...), eta, ondoren, Internet eta sakelako telefonoaren bidez zabaltzen dira. Halakoetan, delitua bera ez ezik, **kaltegarritasuna ere badago irudiaren grabazioan edo zabalkundeetan bertan** (biktimaren osotasun moralaren aurkako delitua izan liteke), eta zigorra filmatutako legez kanpoko ekintzaren ondorioz sortutakoa baino larriagoa izan daiteke (lesioa, larderia, abusua...). Jokabide horiek ciberbullyinga izan daitezke, eta, batzuetan, eskola-jazarpenerako estrategien barruan egon daitezke. Hori dela-eta, adingabeen fiskalek bete-betean jazartzen dituzte.

Legea ezarri egiten da beti...

LEGEA



...adingabeen artean eta Interneten ere bai

HASIERATIK HASITA

> Espainiako Barne Zuzenbideko edozein araturen aurkako jokabide guztiak legez kanpokoak dira, arauzkoak, legezkoak, konstituzionalak... diren kontuan hartu gabe.

> Justiziak legez kanpoko zenbait jokabide jazartzen dituen arren, batzuetan alde zuzenetik salatuta behar dira auziperatuak izan daitezten.

Batez ere, bi eratako erantzukizunak sortzen dira legez kanpoko egintzen ondorioz:

- **Erantzukizun penal** "publikoa", "Estatukoaren" zentzuan. Hori dela-eta, Estatuko segurtasun indar eta taldeek eta botere judizialak ofizioz jazarri ditzakete, eta, zigorrak hain larriak direnez, pertsonaren oinarrizko eskubideak murriztu edo gabetu egin daitezke. Zigorrok honelakoak izan daitezke: askatasuna gabetzea, gizarte-zerbitzuak egitea, isuna ordaintzea...

- **Erantzukizun zibila**, hau da, partikularren arteko ekintzengatik erantzukizuna. Izan ere, batak besteari egiten dio erreklamazioa esparru pribatuan. Oro har, zigorra ekonomikoa izan ohi da (kalte-ordaina), eta egiaztatutako kalteen nahiz epaileak egindako balioespenaren arabera izango da.

> Legez kanpoko ekintzak epaitegira iristen direnean, erantzukizun penalaren eta zibilaren (eta, egon balego, administratiboaren) arabera zigorrak zehazten dira. Horrela, Interneten bideo bat protagonistaren baimena eduki gabe argitaratzen bada, zigor penala (Intimitaterako eskubidea urratzeagatik delitua) eta zigor zibila (pertsonari eragindako kalte moralak) ezarriko dira, zenbait arrazoiren arabera: bideoaren edukia, internautek zenbat aldiz ikusi duten...

> Epailerek kode penal eta zibilean adierazitako zigorrak eta zehapenak ezartzen dituzte, zenbait inguruabar kontuan hartuta: egitate zehatzak nola gertatu diren, egilearen inguruabarrak zeintzuk diren, halaberharrezko elementuak nolakoak diren... Adingabeen erantzukizun zibila beste era batera arautzen da, suposamendu zehatza kontuan hartuta. Euren erantzukizun zibilaren ondorioz sortutako zigor ekonomikoak elkartasunez estaltzen dira (edozein erantzule behartu ahal izango dute gainerakoen zatia ere ordaintzera).

adingabeak eta zigor-erantzukizuna

NOLA ARAUTZEN DA ADINGABEEN ERANTZUKIZUN PENALA?

- Euren egintzengatik erantzukizun penalari dagokionez, adingabeak arau penal zehatzen arabera epaitzen dituzte (urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoa), eta, horretarako, epaile nahiz auzitegi bereziak daude.
- Lege hori 14 urtetik gorako eta 18 urtetik beherako adingabeei ezartzen zaie.
- Epaileak 18 urtetik gorako eta 21 urtetik beherako adin nagusikoei ezartzeko erabakia hartu dezake, inguruabar zehatzak nahiz auziperatuaren heldutasuna kontuan hartuta eta egitateen ezaugarriak zein larritasuna ere balioetsita.
- 14 urtetik beherakoei ez zaie Lege horren araberako erantzukizunik eskatuko. Beraz, Kode Zibilean eta indarreko gainerako xedapenetan adingabeen babesari buruz aurreikusitako arauetan xedatutakoa ezarriko zaie, eta euren guraso edo tutoreek zigor ekonomikoei aurre egin beharko diete.

NOLA ZEHAZTEN DA ZIGORRA?

- Adingabeen epaileek arautegian aurreikusitako neurriak ezarriko dituzte, honako hauexen arabera: delituzko egitateen balioespen juridikoa eta frogaketa, adina, inguruabar familiar eta sozialak, nortasuna eta adingabearen interesa. Epaian, epaileak neurri bat zergatik ezartzen duen azaldu beharko du, eta, horrez gain, epearen berri ere eman beharko du, "adingabearen mesedetan" egindako balioespena kontuan hartuta.
- Ezarritako azken **zigor penalean** oso kontuan hartzen da jokabidea zeinen larria izan den eta akusatua jarrera nolakoa izan den, zehaztutako lege-esparruaren barruan nolabaiteko malgutasuna dagoelako.

Bi erataraz zehazten da:

- **Judizioz kanpoko irtenbidea.** Aukera egokia da, hutsegiteak direnean edo oso delitu larriak ez direnean eta biktimaren aurkako indarkeria edo larderia larria izan ez denean. Halakoetan, ez da epaiketarik egiten, arau-hausleak bere erantzukizuna onartu behar du adiskidantzaren bidez eta barkamena eskatu

behar dio irainduari (gainera, eduki iraingarria edo bideo laidogarria kendu beharko du saretik, esaterako). Bestetik, judizioz kanpoko ordaina ere hitzartu daiteke, arau-hausleak biktimaren edo beste pertsona edo talde batzuen onurarako zereginen bat egin dezan.

• **Epaiketa bera.** Beharrezkoa izango da, jokabidea larria izan denean, adingabeak bere erantzukizuna onartzen ez duenean edo aldez aurretik horrelako edo beste era bateko delituak edo hutsegiteak egin dituenean. Entzunaldiaren ostean, aipatutako legeko 7. artikuluan aurreikusitako neurri bat edo batzuk ezarri ahal izango zaizkio adingabeari. Kasu edo egoera larrietan, adingabeen epaileak, Fiskaltzak eskatuta, kautelazko zenbait zigor ezarri ditzake, epaiketa egin baino lehen.

Zigor penala ez ezik, arau-hauslearen **erantzukizun zibila** ere hartu beharra dago kontuan, betiere, biktimak uko egiten ez badu. Horren arabera, behar beste-ko kalte-ordaina ordaindu behar izango dio irainduari (kalte moralak ere bai). Adingabearekin batera, gurasoek, tutoreek, hartzaileek eta legezko edo izatezko zaintzaileek elkertasunez erantzungo diete kalte-ordain horiei.

ZER NEURRI EZARRI AHAL ZAIE ADINGABEEI?

- > Barnealdia (itxia, irekia, erdi irekia edo terapeutikoa).
- > Tratamendu anbulatorioa.
- > Eguneko zentroa.
- > Asteburuko egonaldia. Zaintzapeko askatasuna.
- > Beste pertsona, familia edo hezkuntza-talde batekin bititza.
- > Erkidegoaren onurarako prestazioak.
- > Gizarte eta hezkuntza arloko jarduerak.
- > Ohartarazpena
- > Ziklomotor eta motordun ibilgailuetarako gidabaimena edo lortzeko eskubidea kentzea edo ehizarako edo edonolako armen erabilerarako lizentzia administratiboak kentzea.
- > Erabateko ezgaikuntza.



Oinarrizko zenbait adiera



ADINGABEEK JUSTIZIAREN AURREAN DUTEN ERANTZUKIZUNAREN EZARPEN PRAKTIKOA

• Legez kanpoko jokabideen ondorioz (mehatxuak, esaterako), helduei kartzela-zigorra ezartzen zaie. Adingabeei, ordea, euren inguruabarren arabera neurriei buruzko araubide bereziak ezartzen zaizkie (ikus "Adingabeak eta erantzukizun penala" epigrafea). Edonola ere, erantzukizun zibila ez ohi da aldatzen, beste pertsona batzuei eragindako kalteen balioespena delako oro har. Gurasoek edo legezko tutoreek euren baliabideez erantzun beharko diote elkartasunez.

ASTUNGARRIA

• Inguruabar edo jokabide zehatza da, eta, delituzko jokabide nagusiarekin bateratuz gero, larriagotu egiten du, eta zigorra gogorragoa izango da. Esate baterako, iraintzea delitua izan daiteke, baina astungarria da Interneten bidez egitea, "publizitate eta guzti" egitea, hau da, hirugarrenek delitua ikustea. Praktikan, zigorra are handiagoa izango da, eragindako kalteari aurre egiteko modukoa izan behar delako.

EPEALDIETAN NEURTUTAKO ZIGOR EKONOMIKOAK ("ISUNAK")

• Zigorrak ezartzeko modua da, eta, horren arabera, eguneko diru-kopurua ordaindu beharra dago epealdi zehatz batean. Esate baterako, egunean bost euro ordaintzea hiru hilabetez.

ERANTZUKIZUN SOLIDARIOA

• Zenbait pertsonak zigor bati elkartasunez aurre egiten diotenean, edozeini eskatu ahal zaio erantzuteko eta inplikaturako guztiena ordaintzeko. Hartara, adingabeei ezarritako zigor ekonomikoa heldu arduradunek ordaindu ohi dute (gurasoak, legezko tutoreak...), eta erantzule solidarioak izango dira.

OINARRIZKO ESKUBIDEAK

• Pertsonen eskubide bereziak dira, Konstituzioan azaltzen dira, guzti-guztiok errespetatu behar ditugu eta instituzioek bermatu egin behar dituzte. Euren bermeak urratuz gero, zigorra ezarriko da. Besteak beste, honako hauexek dira eskubide horiek: norberaren irudia, ohorea, intimitatea eta komunikazioen isilekotasuna.



Oso arrunta eta erraza da Internet behar bezala edo arduraz ez erabiltzeagatiko legez kanpoko egintzaren bat egitea. Zu zeu biktima izan zintezkeenez, Legeak babestu egiten zaituela jakin behar duzu. Bestetik, zuk zeuk ere egin dezakezu delitua. Halakoetan, zure egintzen larritasunaz ohartu nahiz ez ohartu, kasuan kasuko zigorrak ezarriko dizkizu legeak. Hori dela-eta, informazioa eduki eta kontuan hartu behar duzu. Gida hau lagungarria izango da zuretzat. Bertan, honako informazio hau aurkituko duzu:

- ➔ sareko delitu arruntak, adibideen bitartez azalduta.
- ➔ legearen ezarpena, adingabeen artean, batik bat.
- ➔ legez kanpoko ekintzetatik urrun egoteko urratsak.



SAREAN LEGEZ KANPO JARDUTEA OSO GARESTIA DA e-LEGEZKOA IZATEA MEREZI DU